BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4789

EBAZPENA, 2013ko urriaren 11koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena; honen bitartez, Berdintasunaren aldeko 2013ko Emakunde Sarirako epaimahaiaren osaera jendaurrean jarri nahi da.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortzen eta arautzen duen irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren 1.2 artikuluari jarraikiz, sariketaren urteroko deialdia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak emandako Ebazpenaren bitartez egin behar da. Beraz, 2013ko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez, Berdintasunaren aldeko 2013ko Emakunde Sariaren deialdia egin da (maiatzaren 29ko EHAA, 102. zk). Sari horren helburua emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanean nabarmendu diren pertsona fisikoen edo juridikoen (publikoak nahiz pribatuak) jarduera azpimarratzea eta aitortzea da. Hau da, hainbat ekintza, lan edo proiektu bultzatuz, emakumezkoen lana eta horien ahalduntzea aitortzeko alderdi garrantzitsuak hobetu dituzten pertsonak, edo beren ibilbidearen bitartez emakumearen garrantzia balioesteko eta duintzeko lanean nabarmen laguntzen duten pertsonak, edo Euskal Herrian sexuen arteko aukera- eta eskubide-berdintasuna sustatzeko lanean nabarmendu direnak.

Aurrez aipatutako Dekretuko 3. artikuluaren arabera, epaimahai bat osatuko da Saria nori eman proposatzeko, eta erabaki hori jendaurrean jarriko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpenez. Ebazpen hori, hain zuzen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Saria emateko Ebazpena argitaratu baino hilabete lehenago, gutxienez.

Ondorioz, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5 artikuluan ezarritakoa betetzeko ezintasuna dela justifikatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berdintasunaren aldeko 2013ko Emakunde Sariaren Epaimahaia nortzuek osatuko duten jendaurrean jartzea:

Presidentea:

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea.

Idazkaria:

Ana Alberdi Zubia andrea.

Epaimahaikideak:

Marta Alaña Alonso andrea.
Pilar Ardanza Uribarren andrea.
Laura Gómez Hernández andrea.
Ibon Uribe Elorrieta jauna.
Raquel Raposo Acevedo andrea.
Raquel Royo Prieto andrea.
Teresa Nuño Angos andrea.

Itziar Cantera Sojo andrea.
Manoli Cubero Lejarza andrea.

Ordezko epaimahaikideak:

Jagoba Gómez Alonso jauna.
M.ª Jose Biurrun Olano andrea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzietako epaitegi egokian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 11.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.